

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

HARANeko UDALA

Zaldi harana zentro hipiko integratzailearen instalazioen errentamendua eta ustiaketa adjudikatze lizitazioa

Bat etorri Udalaren 2025eko uztailaren 1eko akordioarekin, prozedura irekiaren deialdia egiten da Harana udalerriko Zaldi harana zentro hipiko integratzailearen instalazioen errentamendua eta ustiaketa adjudikatze.

1. Erakunde adjudikatzailea.

a) Erakundea: Haraneko Udala.

b) Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:

— Bulegoa: Haraneko Udalaren bulegoak, 9:00etatik 14:00etara.

— Helbidea: Entzia hiribidea 52, 01117 Alda.

— Telefonoa: 945 406006.

— Posta elektronikoa: avarana.udala@ayto.araba.eus.

— Dokumentazioa eta agiriak lortzeko azken eguna: proposamenak aurkezteko epea amaitzen den eguna.

— Kontratatzailearen profila, hemen: en <https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/>.

2. Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: errentamendua.

b) Deskribapena: Zaldi harana zentro hipiko integratzailearen instalazioen errentamendua eta ustiaketa.

c) Iraupena: bost urte, eta beste bost urtez luzatu ahal izango da urtez urte, udalak instalazioak entregatzen dituenetik aurrera.

d) Loteak: ez.

3. Izapidetzea eta prozedura.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Adjudikazio irizpideak: hainbat.

4. Lizitazioaren zenbatekoa: 3.750,00 euro urtean gehi BEZa.

5. Bermeak. Behin betikoa eta osagarria: adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 5, BEZa aparte.

6. Kontratistaren berariazko betekizunak. Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala.

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: hamabost egun natural, iragarki hau ALHAOn eta <https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/> argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduneko 14:00ak arte luzatuko da epea.

b) Aurkezteko lekua:

— Udaletzeko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

— Telematikoki: kontratatzailearen profilean.

c) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazita daudenak, eta baldintzen agirian jasotako eskaintza ereduan.

8. Eskaintzak irekitzea:

— Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo 15. egun naturala, kontratatzailearen profilean adierazten den orduan (egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da).

— Helbidea: Haraneko Udaletxean.

Harana, 2025eko uztailaren 2a

Alkatea

LARRAITZ WALIÑO ARANA